

12

ARTIKULUA



gizartea

LAUDIO

hizkuntza normalizazioa

XXII



Agenda Local 21

Programa de Desarrollo Sostenible en Laudio



zer da?

Hiztun-komunitate batean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen denean (eta areago oraindik hizkuntza horiek ofizializaturik badaude lurralde horretan) zaila da benetako berdintasun bat izatea euren artean. Kasu gehienetan, hizkuntza bat besteekiko gailendu eta nagusituko da, giza-talde horren eguneroko zereginetan: batez ere, arazo administratibo, ekonomiko eta era horretakoetan aurki dezakegun egoera soziolinguistikoaz ari gara. Esan liteke, eskuarki, hizkuntzen arteko ezberdintasun horiek ospe historikoan, pribilegio sozial, politiko zein beste era batzuetakoetan dutela sorburua. Kontua da hiritarrak, nahiz eta hizkuntza bat baino gehiago ondo menperatu, gizartean dauden zenbait eragin bitarte, hizkuntza horietako bat erabiliko duela maizago.

Legeak eskaintzen duen berdintasun hori dagoenean baina praktikan hizkuntza bat bestea baino gehiago hartzen duenean, "diglosia" izenez ezagutzen da egoera soziolinguistikoa dugu. Tamalez, honelako kasuotan, neurri

eragingarririk ez bada hartzen, hizkuntza ahulenak desagerpenerako joera hartuko du. Gauzak horrela, ezinbestekoak dira administrazioa eta herritarren arteko ahalegin konprometituak, eduki daitekeen ondarerik aberatsena gal ez dadin. Beraz, esan dezakegu sarritan erabiltzen den "hizkuntza-normalkuntza" hori, azken finean, hizkuntzen arteko ezberdintasun soziolinguistikoak desagertaraztea dela. Edo hobeki esanda, hizkuntza bakoitzak bere funtzionamendu integrala lortzea da. Eta gehiago zehaztuz, egoera natural eta ez-diglosiko batean euskarari legokiokeen estatusa lortzen saiatu behar gara.

Legeen aldeari begiratuta komenigarria da jakitea euskarak berezko ofizialtasuna 1979ko Autonomia Estatutuarekin lortu zuela. Bertan, hiritarrek hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko duten eskubidearen berria ematen da. Geroago, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 oinarrizko Legearen bitartez, eskubide horren beteketa eta horretarako baliabideak administrazio publikoaren esku geratzen dira.

Azkeneko urteotan izen berri samar bat sartu da gure eguneroko gizartean. Hainbat eta hainbatetan entzun dugun "hizkuntza-normalkuntza" da.



Laudion Jasangarritasunerako ekintza plana



Laudion zer egin da?

Hartatik, asko izan dira arlo honetan erdietsitako lorpenak. Laudion euskara ia ez erabiltzetik, gaur egungo egoerara heldu gara: hiritarren %21a "euskalduna" da eta %22,8a "ia-euskalduna" (1996ko erroldako datuak). Aurrerapen nabarmen horren eragile nagusiak euskalduntze zentroak (Udal Euskaltegia eta AEK batik bat) eta, zer esanik ez, hezkuntza sistema izan dira. Agian jakinarazi beharko genuke hezkuntza sistemari esker, Laudion lehenengo hezkuntzan matrikulatzen diren ikasle guztiak euskaldun izanik irtengo direla bertatik.

Baina datu pozgarri hauek ez gaituzte itsutu behar. Etorkizuna ez da hain argia. Esaten dugunaren froga nagusia erabilera eskasa da, ezagutza-datuak ikusita espero zitekeena baino askoz ere txikiagoa. Euskararen erabilera neurtzeko Laudion egin den azken azterketan (2001eko azaroan) lortutako emaitza hauxe da: elkarriketa guztien artean %3,7a euskarazkoak dira. Lortutako emaitzak bereziki kezkarriak dira gazteen esparruan: % 1,8a baino ez. Antza denez, gure biztanleria osoa guztizko euskalduna izanik ere, hizkuntzaren arazoa konpondu barik legoke oraindik. Hortik, geroago ikusiko den bezala, aurkezten den Laudion XXI izeneko Garapen Jasangarriaren Programan euskararen erabilera sustatzen duten ekimenei ematen zaien lehentasuna, are nabariagoa oraindik, gazteei zuzendutakoak direnean.

Era askotakoak dira erabilera hain maila eskasekoa izatearen arrazoi posibleak. Baina edozelakoak izanda egoera hain da kezkarria ezen UNESCOk berak (Languages in Danger of Disappearing, 2002) esaten baitigu neurri erabakior batzuk hartu behar direla euskal hizkuntza desagertzen ariren artean.

Beraz, gure ardura hizkuntza-normalizazioaren alde lan egitea da, hizkuntza ofizialdu biek berdintasunean eta esparru guztiak bermaturik bizi daitezen. Eta, horren inguruko legeria aipatzean esan dugun bezala, egin behar hau, neurri handi batean, administrazio publikoaren ardura da, gure kasuan, udal administrazioarena.

Laudion zer falta da egiteko?

- **1 programa:** Laudioarrak euskal hizkuntzan trebatzeko programa. Bereziki, euskararen ezagutza sustatzeko 3 ekimen zehatzez osaturiko programa.
- **2 programa:** Udal administrazio publikoaren hizkuntza-normalizazioaren eragile izateko programa. Udal administrazioaren barruan hizkuntza normalizazioa lortzeko asmoz, 6 ekimen zehatzez osaturiko programa.
- **3 programa:** Euskararen erabilera sustatzeko programa. 14 ekimen zehatzetan oinarritutako programa; honen helburua hauxe da: euskara dakitenek gehiagotan erabil dezaten.
- **4 programa:** Euskararekiko hurbilpena errazteko programa. Euskararekiko atxikimendua hobetzeko bi ekimeneko programa.
- **5 programa:** Hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatzeko eta sustatzeko programa. Arlo ezberdinetan euskararen presentzia materiala areagotzeko asmoz prestatutako 4 ekimeneko programa.
- **6 programa:** Udallerriaren ondare historiko-linguistikoa gorde eta jakinarazteko programa. 6 ekimen zehatzeko programa eta gure ondare historiko-linguistikoa berreskuratzeko, iraunarazteko eta hedatzeko asmoarekin sortua.

Zerbait egiteke geratzen dela uzte baduzu parte hartu, **Laudion denon arteko konpromisu bat.**

Hau da 13 artikuludun bilduren hamahirugarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.